PROSPEKTIKER

ELGETA 2020 HAUSNARKETA PROZESUA.
BIGARREN BILERAKO ONDORIOAK.

GIPUZKOA PARTE HARTZEN

KULTURA POLITIKO BERRIA. HERRITARREN PARTAIDETZA.
NUEVA CULTURA POLÍTICA. PARTICIPACIÓN CIUDADANA.

danon artian
elgeta

GIPUZKOA
zurekin, aurrera

Sarrera

BIGARREN BILERAREN HELBURUAK

Bigarren bileraren helburua, 2020ra begira nolako Elgeta nahi dugun definitzea eta horretarako martxan jarri beharreko ekimenak identifikatzea izan da ondorengo alorretan: garapen soziala, herrigintza eta mugikortasuna.

Dinamika aurrera eramateko, World Café izenarekin ezagutzen den metodologia erabili da. Bileran parte-hartzaileei egin zaien galdera honakoa izan da:

"Zer nolako ekintzak identifikatzen dira 2020ra begira Elgetaren garapenerako?"

Honela, partaideek 25 minutuko 3 saio egin dituzte hiru mahai ezberdinetan. Eta mahai bakoitzean erantzun beharreko galderak honakoak izan dira:

1. ***MAHAIA: Garapen soziala. Premiak eta proposamenak definitu.***
2. ***MAHAIA: Herrigintza. Premiak eta proposamenak definitu.***
3. ***MAHAIA: Mugikortasuna eta zirkulazioa. Premiak eta proposamenak definitu.***

Jarraian aurkezten dira talde bakoitzean jasotako ondorio nagusienak.

1 Garapen Soziala

Lehenengo mahaian jaso diren ekarpenak hauek izan dira:

1.1. - Garapen soziala.

- Anbulatorioan eskaintzen diren zerbitzuak zabaltzea proposatzen da. Zerbitzuen artean premia handiena duena pediatria zerbitzua ikusten da, izan ere, geroz eta haur gehiago baitaude udalerrian. Gainera, alor sozialaren baitan lehentasun handiena duen ekintza dela uste da.
- Kirol eskaintzaren baitan prebentzioaren ikuspuntua barneratzea.
- Herri "kardiobaskularren" irizpideak kontutan hartzea herriaren diseinuan eta jarduerak aurrera eramatean.
- Kirol alorrean udalak jarduerak sustatzea, udalaren laguntza behar denean herritar ekimena laguntzea.
- Pertsona nagusien eguneko zentruan etorkizunera begira aurreikuspen bat egitea sortuko diren premien inguruan.

1.2.- Aukera berdintasuna.

- Immigrazio alorrean, Elgetara bizitzera datozen pertsonentzat harrera protokoloa egitea (atzerritarrentzat) eta harrera gida bat Elgetako intereseko informazioarekin (atzerritarrentzat eta atzerritarrak ez direnentzat). Pertsona nagusien eguneko zentruan etorkizunera begira aurreikuspen bat egitea sortuko diren premien inguruan.

1.3.- Zerbitzu publikoak denen eskuragarri.

- Informazio komunikabideen azpiegiturak martxan jarri (fibra optikoa eta abar).
- Eskaintzen diren zerbitzuen inguruan kuotak jartzerako garaian irizpide berdinak erabiltzea zerbitzu guztientzat (adibidez: zerbitzuak daukan kostuaren arabera jartzea eta baten batek laguntza behar izanez gero, norbere sarreren arabera laguntza sistemaren bidez lagundu).
- Jubilatuen etxe propioa izatea, beste kolektiboek beren tokia duten bezala (ludoteka, gaztetxea eta abar) jubilatuek ere beren etxe propioa izatea beraiek kudeatuta
- Jubilatuentzat jarduerak antolatzea, dinamizazio bat antolatu eta kolektibo hau udalerri mailan aktibatu.

- Taldean aipatu diren beste gai batzu.

- Udalerrira gasa ekartzea.
- Herri guneko industria ateratzea eta industrialdera eramatea.
- Hainbat zerbitzu ezin dira udalerrian izan Elgetak duen dimentsioagatik, alabaina, alternatiba bideragarriak eskaini behar dira, garraio publiko lotura onak izanez gero, premia horiek aseko lirateke.

2 Herrigintza

Bigarren mahaian jaso diren ekarpenak hauek izan dira:

2.1. Herri dinamikoa. Bizia.

- Udal Batzordeak herritarrengana hurbiltzeko, agian bestelako bilera mota batzuk beharko liratekeela uste da: hiruhilabetean behin bilera informatibo bat edota modu erakargarriagoan planteaturikoak, adibidez. Hala ere, bestelako iritzi batzuk diote benetan interesa duen jendeak jarraitzen dituela Batzordeak eta beraietan jorratzen diren gaiak.
- Garrantzitsutzat jotzen da herrian egiten diren ekitaldi guztiak (udalekoak, elkarteetakoak…) koordinatzea eta egutegi bateratu bat osatzea. Elgeta herri bizia baina deskoordinatua dela aipatzen da.
- Errelebo generazioala zaindu eta sustatu behar dela uste da gaur egun dagoen herriko bizitasuna eta mugimendua etorkizunean ere mantentzeko. Honekin batera, elkarte mugimendua ere erraztu, saritu edota sustatzea garrantzitsutzat jotzen da.
- Elgetara bizitzera etorri diren pertsonak herriko bizitzan integratzen saiatzea ere interesgarria izango litzateke.
- Elgetarrentzat gain, kanpoko jende erakartzeko antolatzen diren ekintzak turismoarekin lotu beharko lirateke, baina herriarentzat onura ekarri behar dutela edo, maila batean errentagarriak izan behar dutela uste da.

2.2.- Parte hartzea bultzatu.

- Lehentasun nagusia parte hartzea sustatzeko plana egitea dela uste da.
- Herritarren parte hartzea bultzatzerako garaian, interesgarria izango da herritar "indibidualak", hau da, orokorrean elkarteetan parte hartzen ez dutenak edota herri mugimenduak gehiegi ibiltzen ez direnak erakartzea.

- Betiko bilera formatuak gainditu eta formula berritzaile eta erakargarriak aurkitu behar dira herritarren parteartzea lortzeko, ekintza ludikoak tartekatuz, ingurua aldatuz… (adibidez, pintxo-poteo batekin hasi eta, ondoren hitz egiteko tarte bat hartu…)
- Partaidetzaren kontuan teknologia berriak, on-line partaidetza, sare-sozialak… oso kontuan hartu beharreko tresna direla aipatzen da.

2.3.- Tokiko Komunikabideak modu iraunkorrean garatzeko gaitasuna areagotu.

- Tokiko komunikabideak diruz laguntzea egokitzat jotzen da.
- Herritarrak komunikaturik mantentzeko, agian, panel digital informatiboren bat jartzea (herriko plazan adibidez) interesgarria izan litekeela uste da.

2.4.- Inguruko herri eta erakundeekin elkarlan eraginkorra.

- Herri txikia izanik ezinbestekotzat jotzen da inguruko herriekin elkarlanean aritzea: azpiegitura batzuk elkarbanatzeko, zenbait foro edo erakunderen aurrean indarra egiteko…
- Mankomunitateak paper garrantzitsua du ,eta izan behar du etorkizunean ere, aipaturiko elkarlana sustatzeko, trakzio lana egiteko… Hori dela eta, mankomunitatea indartzea komenigarria ikusten da ahal den estabilitate gehien lor dezan.
- Inguruko herriez gain, bailarako eragile sozial eta ekonomiko garrantzitsuekin elkarlana sustatzea ere interesgarria izan daiteke (kooperatibekin…)

3 Mugikortasuna eta zirkulazioa

Hirugarren mahaiari dagokionean honako ekarpenak jaso dira:

3.1.- Herri barruan motordun zirkulazioa murriztu.

- Orokorrean, kontzientziazio eta hezkuntzaren lanaren beharra, Elgetaren dimentsio txikia kontutan izanda.
- Industrialderako bidea:
  - Oinezko bideak sustatu; bideak markatu eta txukundu.
  - Lasao Kaletik industrialdera pasabidea hobetu.
- Aparkalekuak:
  - Aparkaleku disuasorioak herri sarreran? Ez da beharrezkoa ikusten, ez baita aparkatzeko arazorik ikusten.
  - Gaur egun dauden aparkalekuak / parkingak aztertu eta horiei buruz informatu; seinalizazioa hobetu herri osoan zehar.
- Saihesbidearen ondorioz, herriko bide zentrala peatonalizatzea? Ez dago kontsentsurik.
  - Gurasoak lasaiago egongo lirateke.
  - Komertzio eta negozioen kalterako izan daiteke.
  - Ez luke zergatik herriko dinamika hobetuko.
  - Beste aukerak: peatonalizazio tenporalak (pibote bitartez….).
- Elgetako negozio eta komertzioarengan kotxearen erabilera mugatzeak eta aparkalekuak ez izateak izan ditzakeen eraginak aztertu, batez ere Elgetatik kanpo datozenen kasuan.
- Abiadura moteltzeko neurriak hartu; kotxeentzako oztopoak jarri.

3 Mugikortasuna eta zirkulazioa

- Bizikletaren erabilera sustatu:
  - o Batez ere mendiko kasuan: ibilbideak markatu, oinezko eta txirrindulariei begira.
  - o Lehengo ibilbideak errekuperatu; adibidez, Bergara eta Elorriorako bidea, bidegorri bezala planteatu daiteke?
  - o Bizikleta alokatzeko aukerak: ez da beharrezkoa ikusten, ez bailuke funtzionatuko.
- Berraondoko sarrera hobetu.
- Orokorrean, aparkaleku eta bide alternatiboen aukerak ondo seinalizatu.
- Fiskalizazioa? Isunak jartzea? Ez dago kontsentsurik.
- Garajeak dituztenek, autoak barruan gordetzeko kanpainak; ez du merezi. Kontzientzia lana orokorrean planteatu behar da.

3.2.- Mugikortasun iraunkorreko plan integratua.

- Garraio Publikoa bultzatzearen beharra; oso konplikatua ikusten da, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Mankomunitatearen menpe. Apustu handia egin Garraio Publikoaren alde.
  - o Kalitatezko eta denboran mantenduko den sarea. Jarraitasunaren eta maiztasunaren garrantzia.
  - o Plan integrala osatu: gurasoak, haurrak, langileak…. barneratzeko.
  - o Gipuzkoako Foru Aldundiarekin garraio sarearen kondizioak negoziatu eta hobetu; planteamentu global bat egin, linea errentagarriak, errentagarriak ez direnak konpentsa ditzan.
  - o Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko barrera handia; negoziazioaren beharra.
  - o Inguruko herriekin loturak sendotu.
  - o Hirigunerako loturako: zeharkako loturak sendotuaz (adib. Bergara).
  - o "Mozkor busa" Elgetatik pasa beharra.

3 Mugikortasuna eta zirkulazioa

- Industrialderako garraio zerbitzuak:
  - Nahiz eta konplikatua izan (ordutegi ezberdinak…), herritarren beharrekin loturak bilatu; Udaletxeak enpresekin negoziatu eta puntu amankomun horiek bilatu.
- Autoak elkarrekin erabiltzeko aukerak; hori kontrolatzearen zailtasuna.
  - Udaletxean zerrenda sortu dagoen eskaintzarekin.
- Taxi zerbitzua: erdibideko puntua aurkitu; zerbitzu fijoak (ordutegi zehatzak) eta zerbitzu irekiak (gidariak beste zerbitzuak egiteko aukera).
- Elgetako Turismo balioa bultzatzeko helburuarekin, garraioa hobetzeko beharra (bai garraio publikoa, eta baita ere bakoitzak bere kotxearekin Elgetara etortzeko aukera).
- Larrabiltzearra oinezkoen pasabidea egokia egitea.
- Kiroldegitik Pagatza industrialderako oinezkoen pasabidea hobetu.
- Planteamendu berriak: autobusa ordez, trenaren alde lan egin. Adib: debagoiena eta debabarrena trenbide bitartez lotzeko aukera.

3.3.- Garraioak ingurunean eta osasun publikoan duen kaltea leundu.

- Udalak erositako ibilgailuak, emisio kutsatzaile gutxikoak izatea; ados beti ere praktikoa den heinean. Elurra baldin badago, kotxe horiek ondo funtzionatuko al dute? Duda handia sortzen da.
- Herritarrei, emisio kutsatzaile gutxiko ibilgailuak erosteko laguntzen berri eman; neurri hauek norberaren menpe daudela kontsideratzen dira.